

BARATZE BAT ZURE BALKOI EDO TERRAZAN

9 Aholku praktikoa

Zure balkoiko loreontziak erabiltzea proposatzen dizugu landare aromatiko eta barazkiak landatu ditzazun. Erraza eta osasuntsua da eta, gainera, diru pixka bat aurreztu dezakezu.

Ekin lanari!

1 Landatzeko garaian kontuan eduki lur mota, ze sakontasunetan landatu behar den, eguzki edo argiarekiko orientazioa eta ureztatze baldintzak. Landaketa arrakastatsua izan dadin, oso lagungarriak izan daitezke landarea saltzen dizun mintegi-jabeak ematen dizkizun aholkuak edo haziaren ontzian agertzen diren azalpenak.

2 Erne! Egiten diren akats arruntenak hauexek dira:

- Oso sakon landatu.
- Ongarri gehiegi erabili.
- Landareak gehiegi ureztatu edo ureztatzeaz erabat ahaztu.
- Gure balkoiaren ezagarrrietara egotitzen ez diren landareak aldatzen saiatu.

3 Landare jangarriak (barazkiak eta tuberkuluak) landare aromatiko eta ornamentalekin konbinatu ditzakezu, zure balkoiaren dibertsitate eta ikusgarritasunaren alde apustu eginez.

4 Hasteko, ondorengo hauek aldatu ditzakezu, erraza da eta:

- Barazkien artean: tomatea, piperra, kalonjeak, letxugak, azenarioak,...
- Tuberkuluen artean: baratxuriak, tipulak eta patatak.
- Aromatikoen artean: perrexila, erro-meroa, albahaka, ezkaia, erramua...

5 Konposta: etxean egin dezakezu, praktika pixka batekin eta ezagutza minimo batekin, kafe, infusio, fruitu edo barazki hondarrak aprobetxatuz. Lorategi, baratze edo lur sail bat badaukazu Tolosaldeko Mankomunitateak zure eskura ditu konpost-gailuak hondakin organikoekin konposta egin dezazun. (Harremanetarako telefonoa: 943 676216)



6 Izurriteen aurkako etxeko sendabide ekolojikoak: izurriteek kalte handia egin diezaiekete gure barazkiei; beraz, hoberena ez da aurre egitea behin izurritea daukagula, baizik eta prebenitzea agertu baino lehen. Ohikoena, gure barazkien artean beste loreontzi batzuetan landare aromatikoak eta lore batzuk landatzea da. Landare hauen arteko konbinazioak izurriteak agertzea saihestuko du eta gure baratzarentzako onuragarriak diren insektuen elkarbizitzan lagunduko du (Egin kontsulta ondorengo web orrian: <http://hogar.comohacerpara.com/n3166/como-cuidar-las-plantas-en-el-balcon.html>).

7 **Izurriteak prebenitzeko:** asuna eta ura nahastuz oso emaitza onak lortuko ditugu.

Ondoen agerpena ekiditeko: baratxuri eta tipularen arteko batura bezalakorik ez dago.

Mildiuma prebenitzeko: azeri buz-tana oso baliagarria da landare indartsuagoak lortzeko.

8 Izurriteak ekiditeko aproposak diren landareak honako hauek dira: oreganoa, erro-meroa, albahaka, ezkaia, estragoia eta menda. Loreei dagokionez, gomendagarrienak ilenak eta tapeteak.

9 Etxeko ongarri bezala ere hauek erabil ditzakezu: asun ura, barazkiak egositako ura, kafea lur azidoa behar duten landareentzako...



TOLOSAKO
UDALA



tolosakingurumenzentzora

TOLOSA2015